



GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

Federación Guipuzcoana de Montaña

SENDERISMO BATZORDEA – COMITÉ DE SENDERISMO

GR 121. HOBKUNTZAK

Gipuzkoako Mendizale Federazioko senderismo batzordetik GR 121ean, azken hilabeteetan, egin diren hobekuntza eta aldaketen berri eman nahi genizueke:

1.- Urto-Arano etapa: Errekakalkotik Aranora jeitsi beharrean, Unamuno mendia hartu eta Hernaniko Ugaldetxo auzora jeisten da. Bertatik Lizarregiko lepora igo eta Malbazardik pasa ondoren Irurita eta Otraitz txaboletara iritsiko gara. Zaria mendi igo eta Uzpuru lepoan lehengo GR 121arekin bat egingo da.

Aldaketa honekin ibilbidea Gipuzkoako lurraldean sartzeaz gain, Aiako Harriko parke naturalean zehar ibiltzeko aukera izango dugu.

2.- Aritxulegi – Irun etapa: Erlaitzeko gainera Irunera jeisteko San Martzialgo ermitaren barrena joango gara, GR 11ekin batera.

3.- Hondarribia – Pasaia etapa: Talaia ibilbidearen sorrera dela medio, etapa honetan bi aukera izango ditugu. Alde batetik Higer lurmuturretik barrena, Jaizkibelgo kostaldetik gertu ibilbide gorabeheratsua egin dezakegu. Bestetik Hondarribitik Guadalupeko ermitara igotzeko aukera izango genuke, ondoren Jaizkilego tontorrera igo eta gainera gain Pasaiara jeisteko.

4.- Deba-Eibar eta Eibar-Elgeta etapak: Eibarko sahiesbideko lanak direla eta, Ermuara jesiten zen bidea moztuta geratu da. Irailean bide berria markatuko da.

Gure zidorren kalitatearen hobekuntzan jarraituko dugu lanean.

Donostian, 2010eko uztailak 30ean